



BARREN

TOKIKOM

Meskita berriari as-salam aleikom



euskarak batzen gaitu

EL EUSKERA
NOS UNE

**UDAL
EUSKALTEGIAK**
euskaraz ikaslea • ikaslea de euskara



CURSO 15/16 IKASTURTEA

UDA IKASTAROA

IRAUPENA: 80 ORDU

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
(3 ordu egunean)

Irailaren 5etik 16ra
(2 ordu egunean)

PREZIOA: 123€

**Ikasle eta langabetuentzako
prezioa: 77€**

Bekatzeko-sistema

MATRIKULALDIA: ekainaren 1etik 21era arte

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2 – Tel.: 943 742 731

ELGOIBAR

5 txartel x 100€

Ekainaren 13tik 17ra

- ▲ Egin ezazu zure erosketa Txankakua elkarteko edozein dendatan.
- ▲ Ekainaren 13tik 17ra bitartean egindako erosketa guztien artean 100 euroko 5 erosketa txartel zozketatuko ditugu!
- ▲ Animatu zaitez, ez galdu aukera!



TXANKAKUA
ELGOIBARRKO MERKATARIEK

EUSKO JAURLARITZA
DI-DEPARTAMENTUEN KOPURUA
ETXETIKIARRAZIEN SAIALA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



ABEL ARRIAGA



"Lanean parte-hartzea sustatu nahi bada, bizitzako beste arlo batzuetan ere sustatu beharko da"

Txori txiki batek esan dit, Andoitz, Arizmendiarrietaren jarraitzailea zarela. Kooperatibismoari buruz idazten hasita, BARRENEko ale hau oso-osorik beharko genuke guretzat. Horregatik, kooperatibek bere-berea duten eta azkenaldian modan dagoen ideia bat aipatuko dut barririk: parte-hartzea. Orain hilabete batzuetako *Larrun* aldizkarian, Olatukoop, Mondragon eta Ner taldeetako lau kooperatibistek, parte-hartzeari buruzko gogoeta egin zuten. Hausnarketarako galdera interesgarriak jarri zituzten mahai gainean: parte-hartzea kooperatibetan, jarduera ekonomikoaren benetako demokratizazioa ala zerbait estetiko da? Lan-erreminta moduan ala helburu moduan ulertu behar da? Lehiakortasuna ala demokratizazioa da helburua?...

Askotan pentsatu izan dut Arizmendiarrietaren ideiak praktikara eramango badira, ezin direla lan mundura bakarrik mugatu. Lanean parte-hartzea sustatu nahi bada, bizitzako beste

arlo batzuetan ere sustatu beharko da. Berdin kooperatibetako gainontzeko balioei dagokionez ere: solidaritatea, autonomia, berdintasuna... Etxean edo-eta kalean geure egiten ez ditugun jarrera eta balioak, nekez barneratuko ditugu lanean. Azken finean, gure bizitza pribatua, publikoa eta laborala, eskutik doaz, neurri handi batean.

Politikagintzan ere asko hitz egiten da parte-hartzeaz, nahiz eta gehienetan, lau urtez behin bozkatzera mugatu, eta jakin badakigu, hori baino askoz gehiago dela. Herrigintza, kultura eta kirol arloko mugimendu eta elkarteak, parte-hartzaileagoak dira orokorrean, baina hauek ere oraindik, bide luzea dute egiteko.

Norbanakoen, elkarteen eta orokorrean gizartearen transformazio kulturalaz ari gara eta hori erronka potoloa da: politologia, bere kabuz garatzeko. Teoria praktikara eramaten asmatzea da kontua. Baina nola? Hor dago gakoa.



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



"Badago danok norabide berian tira egittia baiño ezer eraginkorragorik?"

Bere ideiak praktikara eramateko izan zaban ahalmena miresten dot batez ere Arizmendiarratangandik. Berak zion bezela ideia ona ekintzara eramaten dan hori da. Adibide garbixa da indartsu jarraitzen daban kooperatibismua. Aipatu dittuzun balioak lan mundutik kanpora ere aplikatzea nahi baditugu, nik uste Mondragon Korporaziak datorren uztailian bozkatzeko daban proposamenian datorrela erantzuna: auto-exigentzia eta erantzunkidetasuna.

Kooperatibetan aplikau biharreko kontzeptu hauek bizitzako gainontzeko alorretan barneratzea lortzen badogu geure gizarteari proposatu diogun bidia eingo dogula uste dot. Auto-exigentzia, konformistak ez izateko eta beti pauso bat gehixago emateko biharra dagola ikusteko. Erantzunki-

detasuna, danok geralako gure bizitzaren inguruan gertatzen danaren arduradun eta beraz erantzukizunez jokatzia besterik ez jakulako tokatzen.

Bestalde, lehiakortasuna eta demokratizaziua jartzen dittuzu aurrez-aurre. Bateragarriak diala esango nuke. Demokratizaziuak erabakixak politikaxago hartzia ekarri laike. Baiña hartu diran momentutik partaide guztiok erabakixok geure egiteko aukera askoz ere haundixagua ematen deu. Badago danok norabide berian tira egittia baiño ezer eraginkor eta lehiakorragorik?

Nik ere kooperatibetan gizarteratu laikezen makiña bat balio ikusten dittut. Baina baitta alderantziz ere: Morkaikon ikusi dittuten makina bat balio eramango nittuzke nere kooperatibara.

MIKEL ARTOLA

Ekonomialaria



Egitea eta desegitea

Maximizazio jarrerak erasan gaituenetik bezeroak saldoka amestu eta sailkatzen ditugu. Perretxiko sorta bildu beharrean, zelaiak kiskaltzea nahiago. Osagarritasun handiagorik ezean norberaren bezeroak partekatzea asmo tentel xamarra da, baina bakarkako ariketa landuen gaitetik beharko luke feriaren emariak. Eman ez eta besteenak osteko prest daudenak ere ez dira falta.

Feriaren indarra elkargune aberats

izatean datza, plaza, zer eskainia dutenei zer jaso eta zer ikasia dutenak bertaratzea. Eskaria eta eskaintza artez jostea.

Zikloen garai nahasiotan loditzera eta argaltzera ohitu gara. Goserik gabe hobetzerik ez balego bezala. Liderren gidaritzarik gabe aurrera egiterik egongo ez balitz bezala. Suntsitu gabe sortzerik ez balego bezala.

Tamainako feria industrialen atzean ez da buruhausterik falta. Txukun erakutsitakoaren ertz ikusezina da planifikazio zaindua, lan isilarena arrakasta zaratatsua. Egoera zailtan tentagarria da epe motzari soilik erreparatzea; kentzea, bertan behera uztea, etetea, apurtzea. Baina epe luzeak darama bi-dearen arnasa. Zeretik eraikitzea nekeza eta are garestiagoa. Desegitea beti errezagoa, emankorra beti egitea.

Krisi basati hark, ke-saltzaileak ez ezik, feria industrialak ere bortizki kolpatu zituen. Bezeroak desagertu antzean ibili izanaz gain, bizirau-penerako produktuaren garapen berri bat nahitaezkoa izan da; feriaren eskaintzaren hobekuntza. Lehen, feriak gertaera bakan eta sonatuak ziren, salmentetan eragin zuzena eta berehalakoa zeukatenak. Orain, saltzaile eta eroslearen arteko bideak infinituraino ugaritu dira eta marketing tresnek arnasa hartzen ere ez digute uzten.

“Tamainako feria industrialen atzean ez da buruhausterik falta”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkoaldueraren Argitalpena

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Iritzi Agirreazaldegui, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaldua Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izaguirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eider Iriando, Edurne Izaguirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBARKO UDALA



LAGUNTZAILEAK:



MENDAKO 1993



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► IKASTOLA EGUNA

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, ekainaren 4an, ospatu zen Ikastola eguna antolatzen lagundu zuten guztiei: babesleei, gurasoei, ikasleei eta baita irakasleei ere. Goizean goiz hasi zen eguna, parte hartzaile guztiek elkarlanean bideratutako ekimenari esker, giro ederrean igaro zen. Bestalde, azpimarratzekoa izan zen antolaketan fin-fin aritu ziren neska-mutilen lana.

Eskerrik beroenak parte hartu zuten guztiei!

Laguntzaileak: Urkiola taberna, Tanta taberna, Viento Sur gastroteka, Lanbroa taberna, Malape taberna, Sigma jatetxea, Karakate jatetxea, Txarriduna jatetxea, Ziarda harategia, Otzarreta harategia, Mari harategia, Laboral Kutxa, Banco Santander, Banco-Credit Agricole, Ainhoa fisioterapia zentroa, Astigarraga kirolak, Iriondo kirolak, Evia, Noa estetika-ileapaindegia, Idama ileapaindegia, Lurdes ileapaindegia, Muruamendiaraz gozotegia, Doña Mercedes, Basalur, Xarlem Kreazioak, Arriere de la Maison de Izaro, Zu+Ni, Ecenarro Denda, Skandalo, Ferpi, Carmen Arrillaga, Ipintza, Aranburu bitxidenda, Maggi, Surya, Kala loradenda, Pitxintxu, Pelegrin, Nava inprimategia, Alkorta bakailaoak, Beristain, Coviran, Eroski supermerkatuak, Eroski Bidaiak, Udala

Liburutegia, Euskal Kostaldeko Geoparkea, Markel Bergara, Asier Riesgo, Markel Susaeta, Zuhaitz Gurrutxaga, Mikel Pagadi, Eibar SD, Elgoibar CD, Sanlo EKT, Jasone Osoro, Niala magoa eta Mausitxa.

Eskerrik asko guztioi.

Ikastola Eguneko Batzordea

► ESPAINIAR ERREINUKO USTELKUNDEAK (BIS)

Espainiar Erreinuako kolonia garen heinean, berriro deitzen gaituzte ustelkundera. Berriro ere gure buzoiak hitz hutsez beteko dizkigute. Norbaitek iritziz aldatu ote du etxera iritsitako paper horiekin? Zuen nahia herritar ororengana iristea bada, jorratu atez atekoa, eta nahi duenak hartuko du gainera bozkaleketan, aurkezten diren alderdien bozka paperak bertan daudenez zergatik papera eta dirua alferrik galdu?

Diruarenak erantzun erraza du, dohainik irteten zaielako ordezkariak lortuz gero, denon artean ordaintzen dugulako.

Baina zer gertatzen da eskutitza itzuliz gero? Ba alderdi politikoek beraien poltsikotik ordaintzen dutela eskutitza itzultzea. Zu ere nazkatuak bazaudete, sobreakin aurrealdean idatzi hizki larriz ITZULIA eta atzekaldean hizki larriz ere EZ DU JASO NAHI; ondoren zure bebarruan postariaren buzoia baduzue bertan sartu edo bestela

edozein buzoitan edo postetxean bertan sartu ahal duzue.

P.D.: Eta udazkenean Baskongadetakostelkundera, Endika errepika.

N.L.F.A.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaitza:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idatzkiak, pertsona eta erakundeei zuzendutako mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitz argitaratuko.


A. Garate
Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia - 20870 Elgoibar
610 226 651

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean**
943 744 112
Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
BARREN

Kalamua aldera bisita gidatua antolatu dute domekarako, 1936ko Gerrako fronteko gorabeherak ezagutarazteko

Kalamua aldean 1936ko Gerran izandako borrokaldien eta erasoaldien berri emateko asmoz, ibilbide gidatua antolatu du Ahaztuen Oroimena Elkaratek domeka honetarako. Inguru horretan erasoaldi gogorrak izan ziren zazpi hilabetez, bai frontea egonkortu aurretik bai ondoren. Ibilbidea 09:30ean abiatuko da Usartzatik (Eibar). Usartza-Akondia-Garagoiti-Tomas Meabe aterpetxea-Diruzuloko tumulua-Max-Kalamua ibilbidea egingo dute. Akondia mendian, "kokapenez gain, gabon betean, San Esteban egunaren bezperetan Amuategikoek frankistekin egunkari trukea egiteko akordioaz jardungo dugu, edo urteetara jarri zuten gurutzearen jatorriaz", azaldu du Ahaztuen Oroimena elkar-teak.

Kalamua inguru horretan Celta batailoiko Manuel Aguite eta Antonio Aguite anaiak hil zituzten. Haien ilobak ibilbide gidatura etorriko dira Galiziatik, haien osaba biak zein lekutan hil ziren bertatik bertara ezagutzera. Celta batailoiaz gain, ELA-STV sindikatuaren San Andres eta Saseta batailoioi aber-tzaileek ere eutsi zioten posizio haietan. Kepa Ordoki San Andres batailoiko konpainia bateko buru-zagiaren senitar-tekoak ere etorriko dira. Ibilbidearen ostean bazkaria egingo dute Barinagan (Markina).



BARREN astekariko banatzaileek karrotxo berriak estreinatuko dituzte



Hemendik aurrera BARRENeko banatzaileek karrotxo berdeak era-biliko dituzte barixakuetan astekaria irakurleen buzoietara eramatera-koan. BARRENen banaketa sistema hobetzeko neurrietako bat da. Astekaria banatzen duen lan-taldea identifikatu ahal izango dute ira-kurleek, eta zuzenean banaketaren inguruko gorabeheren berri erra-zago eman ahal izango diete.

BARRENek eskerrak eman nahi dizkio Antxustegi enpresari, berare-kin izandako elkarlanaren bidez lortu baitira karrotxoak. Argazkian, Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentea Antxustegiko langileekin batera, karrotxoak jasotzeko unean.

Oin Alairen garrantzia

Datorren ikasturtera begira, Udalak eta ikas-tetxeek Oin Alai egitasmoari buruzko informa-zioa kaleratu dute, eta gurasoak animatu nahi dituzte egitasmoa indartu dezaten. Udalak lan-dutako azterketaren arabera, egitasmoak onura asko dauzka:

- ◆ Umeen autonomia eta ardura lantzea. Fro-gatuta dago klasera oinez joaten diren umeak erneago ailegutzen direla.
- ◆ Umeek ariketa fisikoa egitea.
- ◆ Herriko autoen kopurua murriztea, batez ere ikastetxeen inguruan sortzen diren auto pilaketak, arriskuak eta keak murriztea.
- ◆ Eskolako bidearen segurtasuna bermatzea eta hobetzea.
- ◆ Mugikortasun ohitura jasangarriak bultza-tea.

Morga SLri esleitu diote Sigmako pasabide berriaren proiektua

Elgoibarko Udalak Morga SL enpresari esleitu dio Sigmako josteko makinaren ondoan egingo den pasabide berria, oinezkoak errepide gainetik pasatzeko. Proiektuaren lizitazio aurrekontua 247.684 eurokoa zen (BEZ sartu gabe) eta eslei-pena 201.426 eurotan egin da (BEZ sartu gabe). Exekuzio epea, berriz, lau hilabetekoa da.

Larrialdiko bilketa hasi du Caritasek umeen eta gaztetxoan premiei erantzuna emateko



Caritasek arropa eta oinarritzko zenbait material emateko deia zabaldu du herritarren artean, Oti 18 urtera bitarteko hainbat elgoibartarren premiei aurre egiteko. Kasu honetan, arropa eta beste materialak zuzenean Caritasek bertara eramateko eskatu dute (trenbide kalea), ez arropen edukiontzietara. Era guztiak jantziak behar ditu Caritasek, baita oinetakoak ere. Horrez gain, bestelako materialak ere hartuko lituzkete: toallak, mantak eta izarak, esate baterako. Haur jaio-berrien kasuan arropa ez da hain beharrezkoa baina umeen karrak, adibidez, oso beharrezkoak direla jakinarazi du. Bolumen handiko paketeak etxeetan batzeko aukera ere jarri du Caritasek. Informazio gehiago: 678 840 450.

Haur minbizidunen arreta hobetzeko eskatu du Seijas mendarorak Gasteizen

Gasteizko Legebiltzarrean izan zen Mari Carmen Seijas mendarorak astelehenean, Aspanogi elkartearen izenean. Donostiako Unibertsitate Ospitalean, onkologia pediatrikoko arloan dauka umea leuzemiaz gaixorik.

Profesionalen tratua bikaina dela nabarmendu zuen, baina ospitalean leku falta dagoela kexatu zen. Izan ere, zazpi gela besterik ez daude ospitalean haur eta nerabeentzako, eta leku faltan izan dira batzuetan.

Minbizidun haurrentzat jolaserako gune bat jartzeko eskaera ere egin zuen Seijasek. Denbora guztian gelan egon beharrean, jolasean ibiliko balira hobeto izango litzateke bere ustez.



Alcerrek mahai informatiboa jarriko du



Gipuzkoako giltzurrun gaixoen elkarte da Alcer, eta bihar goizean (zapatua) elgoibartarrei informazioa eskaintzeko mahai informatiboa jarriko du Kalegoen Plazan (10:30-14:00). Giltzurrun gaixoen bizimoduaren inguruan eta jasotzen dituzten zerbitzuen inguruan kontzientziatu nahi dituzte herritarrek. Koro Aldaz Gipuzkoako Alcer elkartearen presidentea (argazkian, eskuman) herritarrek animatu nahi dituzte informazio mahaitik pasa daitezen. Gipuzkoako Alcer elkarteak aurten 40 urte egin ditu.

Ikastola eguneko zozketa

Elgoibar Ikastolak jakinarazi du zapatuan Ikastola Egunean egindako zozketako lehen saria 1.298 zenbakiari egokitu zaiola. Txartel sariduna agertu bada ere, oraindik bigarren saria duen txartela ez da azaldu, eta 1.313 zenbakiari egokitu zitzaion (ordezkoa, 2.291). Bigarren saria duenak lehenbailehen Ikastolarekin harremanetan jartzeko eskatu dute.



Zutik hasi eta belauniko, lurrean, egiten dituzte otoitzak musulmanek.

Meskita berria, musulmanek otoitz egiteko eta elkartzeko gunea

Meskita, musulmanen tenplua, otoitz egiteko lekua, baina bestelako funtzioak ere badituena, biltoki eta kultur gunea ere bada. Elgoibarren lokal txiki batean egon ondoren, musulmanek badute orain meskita berria Pedro Muguruza etorbideko 85. zenbakian otoitzerako eta elkartzeko leku handi eta txukuna. Musulmanek ekainaren 6an hasi zuten Ramadana, beraientzat urteko garai garrantzitsuenetakoa, fede eta sinesmenen arabera hilabetez egunero, egunsentitik ilunabarrera, baraualdia eskatzen diena.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Musulmanak otoitz egiteko eta sermoia entzuteko eraikin sakratua da meskita, Islameko bizitza sozial, kultural eta politikoaren gunea garrantzitsua. Herriko musulmanak biltzeko tokia ere bada eta guztiei zabalik dago gainera. Elgoibarren, lokal txiki batean alokairuan egon ondoren, ireki dute

meskita berria Pedro Muguruza etorbidearen amaiera aldeko parbilo batean. "Lehen herritik gertuago geunden, baina oso leku txikia zen eta jende gutxiago joaten zen, kanpotik apenas. Oraingora Mendarotik eta Debatik, esaterako, etortzen dira, han ez dutelako edo kanpotik lanera hona etortzen direnak", esan



digu meskitan harrera egin digun Abdelkader Ennacirik.

Tawasol komunitate musulmanaren eraikinean sartu eta oinetakoak kendu behar dira lehenengo, hori baita beraien ohitura. Ondoren, eraikina bisitatzeko aukera eskaintzen dute hango ki-deek. Sartu orduko ikasleen gela dago eta otoitzera etortzen direnen seme-alabek arabiera, musulmanen kultura eta Korana ikasten dituzte han asteen hiru aldiz Imanak eta irakasle emakume batek ematen dizkien eskoletan. Horrez gain, emakumeen otoitzerako gela, sukaldea, biltegia –jende gehiegi elkartu eta goian kabitu ezean otoitzerako baliatzen dutena–, oinak eta eskuak garbitzeko lekua eta errezurako ohiko leku nagusia daude.

Gizonezkoek gune horretan egiten dituzte otoitzak eta egun arruntetan 20-30 lagun elkartzen dira, egun berezietan, barixakuetan adibidez, askoz gehiago. Irekiera egunean, esaterako, ia 200. “Adin guztietakoak elkartzen gara, gurasoek umeak ere

elkartzen dituzte. Emakumeak gutxiagotan etortzen dira etxean bestelako zereginak dituztelako, beraz, etxean otoitz egiten dute”, dio Abdelkader Ennacirik. Emakumeek beraiantzako gela bat dute bereziki otoitzerako. “Emakumeak gela nagusira etorriko balira otoitzera edo jende asko dagoelako gela partekatu beharko bagenu, emakumeak beti gizonetzkoen atzeko ilaretan jarri beharko liriateke. Izan ere, emakumeek beraien xarma eta edertasunarekin gizonetzkoak erakartzen gaituztenez horrela jartzea da Islamak ezarritako araua, bestela otoitzean arreta galduko genuke eta”.

Elkarteak erosi du lokala, baina ez dago bazkiderik. Hala ere, jendeak borondatez ematen du dirua eta zerrenda batean jasotzen dute dirua eman dutenen izena. “Ehun inguru izango dira dirua ematen dutenak; baina etortzen direnak, auskalo. Arazoa da ez daukagula datu edo estatistikarik hemen bizi garen musulmanei buruz, beraz, ezagutzen ditugunei helarazten diegu honen berri, baina eza-gutu ezean ezin dugu”, esan du Ennacirik.

OTOITZAK GELA NAGUSIAN

Oinetakoak kendu eta eskailerak igota gela handi eta argi bat dago, horma zuriduna, arte islamiarra irudikatuz egindako erliebeekin. Lurrean alfonbra grisa dauka eta bertan lerro zabal granateak. Lerro horiek mugatzen dute otoitzerako kokatu beharreko tokia, denak ahalik eta zuzenen egoteko.

Izan ere, gela horretan egiten dute otoitz. Barixakuko otoitza (Salat jumua) izan ohi da esanguratsuen. Otoitza hasi aurretik Imanak hitzaldia (khutba) eskaintzen du berak aukeratutako gai bati buruz, eta ondoren, eskailerara igoko da, eliza kristauetako pulpituaren pareko den *almehrab*-era, otoitza egiteko. “Meskitako zeregin nagusi horretaz Imana arduratzen da. Ez du bitartekari lana egiten jainkoaren eta hona etortzen garenon artean, baina behintzat arduratzen da Koraneko mezua gugana iritsi dadin”, argitu du Anass Karzik, Ahmed Yerro Imana alboan duela. Egunero ohiko errezuak (Salat) egiten dituzte: egunsentikoa, eguerdikoa, arratsaldekoa, ilunabarreakoa eta gauekoa eta bertan jende aurreko islamiar fedearen aitopena (Shahada). “Ahal dugun guztietan etortzen gara otoitzera, baina batzuetan kanpoan gaudelako-edo etorri ezin bagaitzeko etxean errezatzen dugu. Jendearekin komunikatzeko ekitaldiak ere gela honetan egiten ditugu. Jaiak ere sermoiekin eta jatekoekin ospatzen ditugu eta sermoi horiek Imanak ematen ditu, gurean. Erljiioaren

jakintza berezia du eta berak zuzentzen ditu errezuak”, azaldu du Abdelkader Ennacirik. Horretarako Imanak modu berezian prestatu behar direla dio. “Oinarriko baldintza edo ezaugarri batzuk bete behar ditu. Korana buruz ikasi behar du eta jurisprudentzian oinarriko maila bete behar du. Bestalde, jakin behar du, bizi den inguruneke giroa, integrazteko edo bizi diren inguru horretan

*Otoitz gela nagusian
alfonbra grisa dago eta bertan
lerro zabal granateak.
Lerro horiek jarraituz
otoitzerako zuzen jartzen dira*

Meskitaren lana ez da arlo

erlijiosokoa bakarrik,

arlo sozial eta

intelektualekoa ere bada

modu egokian jokatzeko, tokiaren araberaz azalpenak aldatu egin baitaitezke". Gainera, musulmanak meskitan otoitzak elkartzen baditu ere, izaten da oztopo txikiak. Korana dute oinarri eta arabieraz dagoenez batzuek ez dute ulertzen. Hala ere, bestelako hizketaldiak itzuli egiten dituzte edo zuzenean gaztelaraz egin, denek ulertu ahal izateko.

MESKITEN IZAERA SOZIALA

Askotariko gaiak lantzen dituzte otoitzekin batera egiten dituzten hizketaldietan, "jendearen arazoak eta beharren arabera", dio Anass Karzik. "Ikusiko bagenu meskitan bertan edo herrian badaudela jorkaera egokiak ez dituzten pertsonak (gauean berandura arte modu txarrean kalean gelditzen direnak) horri buruz prestatuko genuke diskurtsoa, konturatu daitezkeen ondo jokatu behar dutela. Umeen hezkuntza ere bada beste gai bat. Beraz, gure portaerei dagokienez lantzen dugu gizartean nola integratu eta nola ondo portatu behar dugun. Baina erlijioarekin propio lotutako gaiak ere lantzen ditugu, jakina. Gizarteko gaietan, esaterako, Frantziako atentatuak gertatu zirenean

horien aurkako iritzia azaldu eta salaztea litzateke kontua".

Ezkontzak eta umeen jaiotza eskertzeko jaiak (Aqiqa), hemengo bataioaren parekoa, egiteko aukera ere badago. Horrez gain, Ramadan hilabetearen egunero baraualdia eteten da meskitan. Meskitan Islama ezagutzeko asmotan datozenei argibideak ere ematen zaizkie eta gizarte alderdia ere jorratzen da.

Meskitak aipatu hutsarekin erlijioarekin lotzen ditugu, baina hango musulmanek argi utzi dute meskitaren lana ez dela erlijio arlokoa bakarrik. "Arlo sozialekoa ere bada eta intelektualekoa. Era berean, musulmanok elkarren berri izateko tokia ere izan daiteke: norbait gaitxo badago edo haurdun... hemen jakiten dugu askotan. Azken finean komunitate edo elkarte lana egin nahi dugu ez soilik erlijioari lotuta", dio Anass Karzik.

ATEAK IREKITA

Denbora gutxi da meskita berria ireki dutela, baina herriko musulman gehienek badute honen berri aurrekoa ezagutzen zutelako. Pakistandarrak, marokoarrak, algeriarrak, senegaldarrak eta maliarrak daude batez ere. Hala ere, Anass Karzik argi utzi du ateak denentzat zabalik daudela. Izan ere, bizilagun askok errezeloa izan ohi du bere etxe inguruan meskita bat jarri behar dutela entzutean: "Musulman ez diren askok jakin badakite meskita badagoela, baina zer den ez, beraz, jakin nahi izanez gero, edozeinek dauka sartzeko eta galdetzeko eskubidea, beti ere arau batzuk errespetatuz, esaterako, oinetakoak kentzea, isiltasuna edo lasaitasuna. Horrela, elkarbizitza, elkarrikitza eta errespetuaren alde lan egingo dugu". Otoitzean ari direnean ere sartu daiteke musulmana ez den jendea, nola errezatzen duten edo zer egiten duten ikustera. "Frantzian, esaterako, atzean lerro bereziak jartzen dituzte eta norbait joan eta argazkiak ateratzeko ere ez dago inolako arazorik. Gurean oraindik ez da egin, baina denentzat irekita dago. Erakutsi nahi dugu zer egiten dugun musulmanok, zer ematen diogun gizarteari".

Meskita ezagutzera baino ez dira gerturatu batzuk eta haiekin hitz egiteko prest daude, baina beraien artean ere hitz egin eta eztabaidatzen dute gure iritzia emanez, "baina besteak errespetatuz, noski. Izan ere, nire askatasuna amaitzen da besteena hasten denean".

Modu askean otoitz eta berba egiteko gune berria badute, bada, Elgoibarren eta inguruetan bizi diren musulmanek.



Liburuak dituzte gela nagusian, baita seme-alabek eskolak jasotzeko gela bat ere.



Esku eta oinak garbitzen dituzte musulmanek otoitzen aurretik.

Ramadana, hilabete sakratua

Musulmanak Ramadana egiten ari dira. Ilargiaren arabekiko egutegia dute eta bederatzigarren hilabeteari deitzen diote Ramadana, garai honetan egiten duten hogeita hamar eguneko baraualdia (aurten ekainaren 6an hasi eta uztailearen 5era artekoa). Ramadana oso hilabete berezia da musulmanentzat, baraua egiteaz gain gogoeta garaia ere badelako. "Ramadaneko baraualdia pertsonen izpirituaren garbiketaren parekoa da. Urteko gainontzeko egun guztietan berez ez dugu gauza txarrik egin behar, baina Ramadanean are gutxiago. Ez dugu bertan ez dagoen jendeari buruz gaizki hitz egin behar, ez dugu lapurtu behar... Ramadanean are zorrotzago errespetatu behar dugu hori", azaldu du Anass Karzi musulmanak.

Hilabete sakratua da Ramadana musulmanentzat. "Pertsonaren izpirituaren garbiketarako modua eta jainkoarengana gerturatzeko modua. Jendeak Ramadana lotzen du musulmanek sexurik ez egitearekin, ez jan eta edatearekin, baina horren guztiaren gainera dagoen zerbait da. Hilabete horretan gure bihotza garbitzen dugu". Ramadanaren garaian errezuak, ordea, normalak izaten dira, "baina azkenaren ondoren, eguzkia izkutatzen denean lau *rakaa* egin beharrean zortzi egiten ditugu. Imanak Koranaren bertsikulo bat esaten du eta gainontzekoak zutik egonik gorputza pixka bat makurtu behar dugu aurrerantz eta gero baita makurtu ere".

Izpirituaren garbiketak badu tokia, baina baraualdiak pisu handia dauka. Eguzkia irtetea jan eta edateari utzi, eta eguzkia berriz ere sartzen den arte ez dute mokadurik probatzen. Egunaren amaieran, gauzez meskita elkartzen dira eta askorentzat afalordua behar lukeenean beraiek "gosaldu" egiten dute". Jendeak ekartzen du etxetik jatekoa eta baraualdiaren

etena egiten da. Hala ere, hemen ez da jan bakarrik egiten lagun edo senitarteko giroa sortzeko ere bada. Izan ere, dauzlagun oztopoei aurre egiteko bateratuta egon behar dugu".

Baraualdirako badira hainbat salbuespen eta honako hauek dira baraualdia hausteko aukera dutenak:

- ◆ Haurrak.
- ◆ Gaixoak
- ◆ Bidaiariak
- ◆ Hilerokoarekin dauden emakumeak

Ramadana amaitzean, ordea, huts egindako egunak errekuperatu beharko dituzte. Bestalde, Ramadanetik kanpo badira beste egun batzuetan borondatez baraualdiak egiten dituzten musulmanak.

Hilabete sakratu honen ondoren, *Aid Al Fitr* da musulman guztientzat Ramadanaren amaiera ospatzeko egun berezia. Jai honi festa txikia izena ere ematen diote, izan ere, bada musulmanentzat pisu berezia duen beste jai bat ere: bildotsaren jai, *Aid al-Adha*. Musulmanen erlijio egutegian data seinatua da, kristauen Gabonen parekoa. Urtean behin egiten dute Mekako erromesaldiaren sasoian, Ramadana amaitu eta bi hilabete eta hamar egunera, hain zuzen ere.

Aid Fitr familian elkartu eta beraien herrialdeko jaki tipikoak jateko baliatzen dute musulmanek. Egun horretako beste ohitura bat da senideek maitasuna adierazteko umeei opariak ematea. Horrez gain, beste hainbat ohitura jarraitu behar dituzte, besteak beste zuriz eta arropa berriekin janzteia eta ondo garbitzea.

Hilabete sakratua meskita berrian, lagun artean modu goxoagoan bizi izateko moduan dira musulmanak Elgoibarraren.





“Ilusioa egingo lidake Athleticen kamiseta jantzita Europan lehiatzeak”

► **ELI IBARRA** ATHLETICEKO JOKALARIA

Ez dira asko Athleticen jokatu duten elgoibartarrak, baina klubaren historian lekua egitea lortu dute bik: Joseba Etxeberriak eta Eli Ibarrak. Kamiseta zurigorriaekin partida gehien jokatu eta gol gehien sartu dituzten jokalarietako bi dira eta taldeko erreferente izan ziren eta dira. Eli Ibarra (Elgoibar, 1981) da Athleticekin emakumezkoen Liga txapelketa gehien irabazi dituen jokalaria. Joan den domekan lortu zuen bosgarren titulua, azkena lortu eta bederatzi urtera. Aurten bukatuko zaio Athleticekin duen kontratua.

- ASIER ORBEA -

◆ Taldekide guztiok Lezaman batu zineten domekan Bartzelona eta Atletico Madrilaren arteko partida telebistaz jarraitzeko?

Bai. Zapatuan Oviedori 3-0 irabazi eta gero, taldekideak Lezaman batu ginen Bartzelona eta Atletico Madrilaren arteko partida telebistaz ikusteko. Egun horretan titulua eskuratzeko esperantza gutxi izan arren, Bartzelonak ez baitzuen partida bakar bat galdu denboraldi osoan, aukera hori gertuago ikusi genuen Atletico Madrilak gola sartu zuenean. Orduan hasi ginen urduri jartzen. Kalitate handiko jokalaririk ditu Bartzelonak eta bagenekien edozein unetan sar zezaketela gola,

baina ez zen horrela izan eta jardunaldi baten faltan irabazi dugu Liga txapelketa. Titulua horrela ospatzea diferentea izan zen. Nahiago genuen futbol zelaian eta zaleen babesarekin titulua eskuratzeko, baina horrela bizitzea ere polita izan zen. Ospatu gabe ez ginen gelditu.

◆ Nolako izan da denboraldia?

Lehen itzuli ikusgarria osatu genuen. Une batzuetan sei eta zazpi puntuko aldea atera genion Bartzelonari. Liga amaitzeko 11 partidaren faltan, puntu bakar batera gerturatu ziren, eta tentsioa eta emozioa izan du nagusi liga amaierak. Duela urte batzuk antzerako egoera bizitzea tokatu zitzaigun eta ligarik





gabe gelditu ginen. Titulua ia eskuekin ukitu eta ez lortzearen mamu horiek azaldu arren ere, presioa gaintitzen asmatu dugu. Zaleek konfiantza zuten gudan eta "aurten bai!" esaten ziguten arren, zuhurtziaz jokatu dugu. Azken urteetako esperientzia gazietan ikasitakoa go-goan izanda, tentu handiz ibili gara eta jokatu behar genuen hurrengo partida bakarrik izan dugu buruan. Aurten lesio asko izan ditugu gainera, eta horrek ere ez digu lagundu. Nik neuk hiru hilabete eta erdian egon behar izan nuen jokatu gabe. Zorionez, jokalariek gazteentzako pauso bat aurrera eman eta maila onean aritu dira partidarik garrantzitsuenetan. Oztupo guzti horiek gaintitzeak are gehiago gozatu dute lorpen hau.

♦ **Orain bederatzi urte irabazi zuen Athleticen azken Liga txapelketa. Asko aldatu dira gauzak?**

Beste lau Liga irabazitakoa naiz, baina bosgarren hau irabazteko asko itxaron behar izan dugu, bederatzi urte luze. Gauzak aldatu dira, bai. Denboraldi hasieretan asko indartzen diren lauzpabost talde daude orain. Fitxaketa asko egiten dituzte, jokalariek atzerritar asko, eta profesionaltasuna handitzen ari da zenbait taldetan. Guk, aldiz, hemengo jokalariekin osatzen dugu taldea, Athleticen filosofia jarraituz. Horiek guztiagatik guk Liga irabazteak meritu handia du. Lehen lau Superligak irabaztea ere ez zen erraza izan, beti zegoen-eta aurkari indartsuren bat. Gainera, Liga irabaztea beti da oso zaila, urte osoan erakutsi behar baita erregularitasuna. Dena dela, egia da aurten izan dela gogorrenetarikoa.

♦ **Zuen entrenatzaileak ere halaxe na-**

barmendu zuen, "lagun koadrila" batek irabazi duela Liga, alegia?

Bai. Gure artean daukagun taldegiroa izugarria da. Ordu asko ematen ditugu elkarrekin eta garrantzitsua da harreman ona izatea, joko zelaian igarri egiten baita.

♦ **Bederatzi urte asko dira. Bazenuen esperantzarik Liga berriz irabazteko?**

Ilusio handia nuen. Aurrez esan dudan moduan, orain urte gutxi titulua irabaztetik oso gertu geratu ginenez, bagenekien lana eginda titulua eskuratzeko aukera izango genuela. Azken langa hori gaintzea kosta egiten da ordea kirolean, eta berriz tituluren bat ospatzeko aukerarik gabe geratuko nintzela ere pentsatu izan dut zalantza une batzuetan.

♦ **Bost Ligak irabazi dituen jokalariek bakarrik zara. Zer esanahi du zuretzat?**

Esanahi handia du. Urte asko daramatzat Athleticen, eta talde honek momentu zoriontsuak bizitzeko aukera eman dit. Berezia sentitzen naiz. Eta baita pribilegiatua ere.

♦ **2007ko liga irabazi zenuen bost jokalariek jarraitzen duzue taldean. Zuek ala lehen aldiz irabazi duten taldeki-deek ospatu duzue gehiago?**

Denok ospatu dugu. Edonola ere, egia da urte gehien daramatzagunok modu berezian bizi ditugula ospakizunok; batetik, oso momentu txarrak pasa ditugulako, eta, bestetik, gertuago ikusten ditugulako gure ibilbide profesionalaren amaiera. Politika da berriz horrelako sententzioak sentitzea, eta gaztetan baino gehiago konturatzen gara lortutakoaz. Gazteagoek urte asko dituzte titulu gehiago irabazteko, eta hala izan dadila

Jendetza batu zen Bilbon Athleticen lortutako titularen ospakizunetara. Ezkerreko argazkian, Eli Ibarra taldekideekin eta ondoko argazkian Josu Urrutia presidentearen ondoan.

espero dut. Esaten diegu bai, ez dela hain erraza Liga irabaztea. Hasiberrian lortu dute batzuek eta normala dela pentsa dezakete. Esperientzia gehiago daukagunok benetan daukan balioa ematen eta azaltzen saiatzen gara. Lana eginez gero emaitzak ailegatzeko direla ere esaten diegu.

♦ **Nolakoak izan dira ospakizunak? Jendetza batu zenuten Bilboko kaleetan.**

Duela bederatzi urte ere antzerako ospakizunak bizitzeko zortea izan nuen. Gure afizioa beti dago hor. Kanpoan jokatzen ditugun partidetan ere beti ditugu alboan babesa ematen diguten zaleak, eta asko eskertzen diegu hori. Martitzenean Bilboko kaleetan bizitakoa, hasi Be-goñako basilikatik eta udaletxeko balkoiraino, sekulakoa izan zen. Ez daukat barbarik zaleak merezi duten moduan eskertzeko. Beste taldeak Lezamara etortzen direnetan ere mordo bat eskertzen dute harmailetan dagoen giroa, euren zelaietan ez dutelako halakorik.

♦ **Gabarra atera ala ez etzabaida egon da. Zein da zure iritzia?**

Partidak jokatu eta ahal bada tituluak eskuratzeko da gure lana. Hori egin dugu. Liga irabazteak dauka benetako balioa. Behin lortuta, gure jendearekin ahalik eta ondoen ospatzea zen gure nahia, asko kosta zaigu-eta titulu hau ekartzea. Gabarrian beharrezko autobusean igota egitea ospakizuna erabaki zuten, eta gu pozik. Autobusean igota Bilboko kaleak zeharkatzea esperientzia ahaztezina izan zen.

♦ **Jarraitzeko ilusioa eman dizu titulu honek?**

Tituluak jarraitzeko indarra eta gogoia eman dit, bai. Aurten bukatuko zait Athleticen dudaren kontratua. Ez duk klubekoekin berba egin oraindik, baina espero dut akordio batera ailegatu garelako. Ilusio handiz jokatuko nuke hurrengo denboraldian Athleticen kamisetarekin Europan, Txapeldunen Ligan lehiatuko baikara.

'Biraka power! Gure indarra' dantza ikuskizuna eskainiko dute Mendaron eta Elgoibarren

Biraka Dantza Taldeak *Biraka power! Gure indarra!* dantza ikuskizuna eskainiko du jendaurrean. Gaur, ekainak 10, Mendaron izango da saioa, 22:00etan, Goñati pilotalekuan, doan. Elgoibarren, berriz, hiru jardunaldi egingo dituzte ekainaren 15, 16 eta 17an, 20:00etan Herriko Antzokian. Sarrerak salgai daude Pitxintxun hiru eurotan. Lau eta 32 urte arteko 175 dantzari arituko dira saio bakoitzean.

Balleta eta dantza modernoa jorritzen dituen Biraka taldea Josu Mujika elgoibartarrak zuzentzen du eta Eibarren, Elgoibarren eta Mendaron ematen dituzte eskolak taldeko hamar irakasleek, hiru herrietan guztira ia 400 ikasle baitaude.

Dantza indar iturri

Biraka Power! Gure indarra! deitu diote aurtengo ikuskizunari. "Edari



energetikoetan oinarrituta prestatu dugu. Besteak beste adierazten du edari horiek bezala dantzak guri ere indarra ematen digula", dio Josu Mujikak. Dantza guztiak -20 guztira- ideia horren bueltan egingo dituzte eta elkarren arteko koherentzia izango dute. "Musika aldetik ere gaur egun entzuten direnak erabiliko ditugu. Erritmo biziak

eta geldoak elkarrekin nahastuz".

Eibarren lau emanaldietako sarrera guztiak agortu dira. Josu Mujikaren esanetan, "gurasoak ez ezik bestelako herrietarrak ere joaten dira ikustera, ezagunak ez eduki arren jaialdia gustatzen zaielako. Urtero dantza saioa goitik behera aldatzen dugu eta aurtengoa ere gustatzea espero dugu".

Metal doinuak barixakuan Maalan

Sinuosek antolatuta Metal Gaua izan zen barixakuan Maalan. Elgoibartar zein ingruko herrietatik etorritako jende denzente batu zen Legen Beltza eta In Thousand Lakes taldeen metal doinuak entzutera eta antolatzaileen esanetan giro polita sortu zen. Bestalde, gaur, barixakua 20:30era arte egongo dira ikusgai Kultur Etxeko Sotoan Unai Endemañok hainbat kontzertutan ateratako argazkiak. Bitartean, Sinuose irailerako Sotoko Hotsak kontzertuak prestatzen ari da.



Kalegoen euskal dantzek hartuta

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskola ikasturte amaierako jaialdiekin ari da, eta joan den barixakuan Kalegoen plazan dantzariak aritu ziren. Bizkai, Gipuzkoa, Araba eta Lapurdiko dantzak eskaini zituzten arku eta makil dantzak, banakoa eta binakoa besteak beste. Jaialdiekin batera datorren ikasturterako matrikulazioa zabalik da. Izena eman nahi dutenek ekainaren 17ra arteko epea dute eskolan bertan asteleheneetik barixakura 15:00etatik 20:30era.



Pintxo lehiaketa Elgoibarko 25 tabernatan ekainaren 15etik 18ra bitartean



Pintxo bereziak prestatuko dituzte Elgoibarko 25 tabernekin hilaren 15etik 18ra egingo duten pintxo lehiaketarako. 19:00etatik 22:00etara dastatu ahal izango dira pintxoak 1,30 euroren truke honako tabernetan: Gorbea, Larre, Ametsa, Usua, Ibai-Ondo, Iturri, Mahats, Tantaka, Lagun Artea, Gabi, Urkiola, King-Kong, Landa, Karobi, Kaia, Ilunpe, Malape, Txarriduna, Mahala, Pilon, Lanbroa, Lerun, Viento Sur, Salento eta San Roke. Epaileek pintxo onenaren eta bigarrenaren sariak emango dituzte, eta herritarrek aukeratutako pintxorik onenak ere jasoko du saria. Horretarako, pintxoa jan eta txartela bete beharko da. Ondoren, bi lagunentzako dastatze-menua zozketatuko dute Belaustegi jatetxean.

Euskara bultzatu eta gastronomia suspertu

Ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzea eta Elgoibarko gastronomia suspertzea dira lehiaketaren helburuak. Gainera, Udalak uste du egitasmo hau garrantzitsua dela, ostalaritzako establezimenduek beraien sukaldaritzaren erakustean gain, bezero berriak lortzeko.

Pako Aristi: "Hizkuntza batek beharrezkoa denean bakarrik irauten du"

Euskararen isobarak liburuaren berri eman zuen Pako Aristi idazleak eguaztenez Kultur Etxean 40 lagunengana, Elgoibarko Izarrak antolatuta. Euskarak azken mila urtetan bizitako hainbat gertakari kontatu eta euskararen etorkizunari ere erreparatu zion. Bere esanetan, euskarak ez du aurrera egingo gure herria bere buruaren jabe ez bada. Euskaldunok lortzen dugun boterearen arabera izango da euskararen indarra. "Hizkuntza batek beharrezkoa denean bakarrik irauten du, eta Euskal Herrian euskara beharrezkoa izateko, inpedentzia ezinbestekoa da. Hori lortzen ez dugun bitartean, euskarari eustearekin konformatu beharko dugu".



Jasone Osororen 'Ezekiel' liburua ikasleen gogokoena

Juul kanpainako 2016ko sariak banatu dituzte eta Jasone Osoro idazle elgoibartarraren *Ezekiel* liburua lehen saria jaso du Batxilergoko ikasleen artean. Hauteskunde literarioetan gogokoena izan dituzten liburuak aukeratu dituzte Euskal Herriko 53 ikastolako umeez, tartean Elgoibarkoak. Guztira, 26.000 boto eman dituzte. Osorok idatzitako hainbat liburuk arrakasta handia dute gaztetxoengana eta aurrez ere irabazi izan ditu sariak Juul kanpainan.

San Migeldarren eguneko bazkarirako txartelak salgai

San Migel-Aiastian auzotarrek beraien eguna ospatuko dute ekainaren 18an. 11:00etan meza egongo da eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte. Bazkaria 14:30ean izango da eta bazkalostean omenaldia, aurten Benantzio Otaegi apaizak jasoko du San Migeldarren omena. Bazkaritarako txartelak salgai jarri dituzte 30 euroan eta ekainaren 16a izango da erosteko azken eguna da Armueta, Ziarda edo Sahatsu harategietan zein Kalamua elkartean. Jaia dantzaldi batekin borobilduko dute Elustondo anai-arreben trikiti doinuz lagunduta.

Parrokian bisita gidatua zapatuan

San Bartolome parrokiaren 300. urteurrena dela-eta, bihar, zapatua, Kalegoengo San Bartolome eliza ezagutzeko bisita gidatua egongo da. Pello Arrietak emango ditu azalpenak, eta 11:00etan hasiko da. Bestalde, uztailean ere izango dira bisitak: 16an euskaraz, eta 23an gaztelaniaz.

Lauko Elgoibar, Gipuzkoako Kopako txapelkun

Gipuzkoako Kopa irabazi du Lauko Elgoibarrek, Sanloko senior emakumezkoen taldeak. Laukok 29-21 irabazi zion finalean Errenteriako Ereintza Barymont taldeari.

Denboraldiko lehen zatian liga txapelketan lehiatu ziren Zilarrezko Ohorezko Mailan, eta ia azkenera arte borrokan aritu ziren mailari eutsi ahal izateko. Bigarren zatian, aldiz, garaipenez garaipen ibili dira Gipuzkoako Kopan. Zazpi talde lehiatu dira Kopan, ligaxka eran partida bakarrera jokatu den txapelketan. Zazpi jardunaldiren ostean, Laukok eskuratu zuen sailkapeneko lehen postua. Sei partida irabazi eta bakarra galdu zuten elgoibartarrek.

Lauko Elgoibarrek eta Errenteriako Ereintza Barymont taldeek jokatu zuten Gipuzkoako Kopako finala domekan, Donostian. Laukok nagusitasunez lortu zuen garaipena, 29-21 emaitzarekin. Hala, Sanloko behe mailako taldeek aurreko astetan lortu ezin izan duten titulua eskuratu dute senior emakumezkoek.



Gipuzkoako selekzioarekin

Kadete eta gazte mailako Hego Euskal Herriko eskubaloitxapelketa jokatu zuten zapatuan Oñatin, Urretxun eta Zumarragan. Sanloko hainbat jokalarik Gipuzkoako selekzioarekin hartu dute parte txapelketa horietan, eta emaitza onak lortuz gainera. Kadeteek Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatu zituzten partidak. Nesketan Gipuzkoako selekzioa gailendu zen, eta Bizkaikoa mutiletan. Nesken selekzioan Sanloko lau jokalar

zeuden: Nerea Lizarraga, Nora Rodriguez, Maddi Goñi eta June Beitia. Mutileen selekzioan, berriz, Iñigo Elustondo eta Jon Ortega izan ziren Sanloko ordezkariak.

Zumarragan jokatu zen jubenil mailako txapelketan ere izan zen Sanloko ordezkariak. Amaia Rubio eta Maria Bazategik garaipena eskuratu zuten Gipuzkoako selekzioarekin eta bigarren postua lortu zuen Aitor Garciak mutileen selekzioarekin.

Bihar irekiko dituzte Mintxetako igerilekuak



Bihar, zapatua, irekiko dituzte Mintxetako igerilekuak. Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du asteleheneetik barixakura 11:00etatik 20:30era egongo direla zabalik; asteburuetan, berriz, 10:00etatik 20:30era bitarteko ordutegia izango dute. Abuztuan eta irailean ordu erdi lehenago itxiko dituzte, 20:00etan. Kirol Patronatuko bazkideek doan daukate sarrera eta bazkide ez direnek 4 euro (18 urte azpikoak) edo 6 euro (18 urte baino gehiago) ordaindu beharko dute sarrera. Denboraldi guztirako bonuak ere eskaintzen ditu Patronatuak.

Kirol Campuseko izenemate kopurua inoiz baino handiagoa izan da

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatutako Kirol Campusean 220 hurrek eta gaztek eman dute izena, inoizko partaidetzarik handiena. Campusa ekainaren 27an hasiko da, eta lau astetan, asteleheneetik ostiralera, 9:30etik 12:30era kirolean jardungo dute campuseko neska-mutilek. Kirol Campusean Mintxetako instalazioak erabiliko dituzte. Horrez gain, beste kirol gune batzuetan ere arituko dira, IMHn eta Olaizaga kiroldegian, esaterako.

Domina bana judoka elgoibartarrentzat



Elgoibarren jokaturako alebin mailako Gipuzkoako Judo Txapelketan, Egokran taldeko hiru judoek hartu zuten parte, eta domina bana eskuratu zuten: urrezko bat eta brontzezko bi. David Mendazona Laberniak urrezko domina lortu zuen 37 kiloz azpiko kategorian. Gipuzkoako txapelketa irabazten duen bigarren aldia da, iaz ere garaipena lortu baitzuen, beste pisu batean izan bazen ere. Colin Igak eta Julen Galindok, berriz, brontzezko dominak eskuratu zituzten, 52 eta 57 kiloz azpiko kategorietan, hurrenez hurren.

Barry Ballman hil da, Mugertza Krosari eta Elgoibarko herriari lotutako ingelesa



Maiatzaren 20an hil zen Barry Ballman, Ingalaterrako Cross Country Federazioko ohorezko idazkari eta presidente izandakoa, 78 urterekin. Ballmanek oso harreman estua izan zuen Elgoibarrekin eta Luis Santolayaren familiarekin. Berari esker, korrikalari ezagunak etorri ziren Mugertza Krosera eta Donostiara. Sarri bisitatzen zuen Elgoibar. 1981ean Donostiako Udalak Ingalaterrako Atletismo Federazioari eman zion Urrezko Danborra Barry Ballmanek jaso zuen. Felix Berguak ekarritako goiko argazkian (1983), ezkerretik hasita Luis Arrieta alkatea, Julian Goater atleta, Tim Hutchings atleta, David Levis atleta eta Barry Ballman ageri dira.

Elgoibartarrak, jaun eta jabe Hiru Txirlo Txapelketan

Bederatzi jardunaldiren ostean amaitu zen zapatuan Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa eta aiastiarrek maisutasuna erakutsi zuten beste behin ere. Gizonezkoetan San Migel taldeko Javier Osoro izan zen txapel-duna 36 txirlo jota, Asola Berriko Ganix Rodriguezekin lehia estua izan ondoren (36 txirlo). San Migelgo Xabier Loiola hirugarren postuan gelditu zen (35 txirlo) eta Unai Loiola laugarren (34 txirlo).

Bikotekako kategorian lehen bi postuak elgoibartarrentzako izan ziren: Angel Ibarluzea eta Xabier Loiola izan ziren txapeldun (62 txirlo), Imanol eta Javier Osoro bigarren (59). Unai Loiolak hirugarren egin zuen Bergarako Mikel Almortza bikotearekin batera.

Taldeko sailkapenean ere San Migel irabazi zuen 132 txirlorekin.



Astebete atzeratu dute Futbol 7ko hurrengo jardunaldia

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du ekainaren 11n Mintxetan jokatuko beharreko Futbol 7 Txapelketaren jardunaldia ekainaren 18ra pasatu dela.

Ekainaren 4an Mintxetan jokaturako jardunaldian, Jaujar2 taldeak 2-12 galdu zuen Roketxe Crewren aurka, eta Kili Rangersek 1-0 irabazi zion Ruita Lokalari. Papanatas FTK, berriz, 0-1 galdu zuen Pauperimo Balonen kontra, eta Boli-basek 5-2 irabazi zion Argatxari.

LANA.....
Eskaerak

Pertsona elgoibartarra nagusiak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Diplomatu naiz eta informeak dauzkat. 675 711 658

Garbiketa lanetan aritzeko prest nago. Orduka. 612 458 762

Lan bila nabil. Okin lanetan eta sumermerkatuan aritutakoa naiz. 631 363 056

Nagusiak edo umeak zaintzen zein jaxteetan zerbitzari lan egiteko prest. 625 857 164

Pertsona arduratsua orduka garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari aritzeko prest. 612 477 386

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Interna edo orduka. 631 417 922

Garbiketan edo obretan peoi lan egiteko prest. Esperientzia handia. 631 162 014

Garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. 631 212 497

Garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. 631 132 553

Adinekoen zaintzan lan egiteko prest. Interna. 612 266 877

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Esperientziarekin. 603 651 808

Umeak zaintzeko prest, Elgoibarren edo inguruko herrietan. 653 569 293

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Orduka aritzeko eta paseatzera ateratzeko prestutasun osoa. 646 931 162

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest, orduka. Esperientzia dut. 671 989 434

Elgoibartarra etxeak garbitzeko prest. Prezio oso onean. 649 782 967

Gasie euskalduna umeak zaintzeko edota LHko eskola partikularrak emateko eskaintzen da. 688 652 457

Pertsona euskalduna portalak edo elkar-teak garbitzeko prest. 617 571 210

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. 616 281 931

Furgonetarekin banatzaile, sukaldari laguntzaile edo tabernari lanetan aritzeko prest. 688 715 904

Elgoibartarra adinekoak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. 660 511 781 edo 943 742 330

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat,

baita paperak behar bezala ere. 616 328 060

20 urteko ikasle euskaldunak umeak zainduko lituzke uztailean. 608 989 294

Garbiketa lanetan edo umeak eta adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Orduka edo interna. 678 112 785

Adinekoak edo haurrak zainduko nituzke, edo etxeak garbitzen arituko nituzteke. 631 418 130

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Interna. 602 193 095 (Miriam)

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Interna. 612 216 458 (Selena)

Garbiketan, etxeko lanetan eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo orduka. 631 133 431 / 632 825 580

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketa lanak egiteko prest. Orduka zein interna moduan. Erreferentziak dauzkat. 632 871 550

Adinekoak zaintzen edo sukaldari laguntzaile moduan egingo nuke lan. 677 259 560

Lan bila ari naiz. Adinekoak zaintzen edo sukaldean laguntzen aritzeko prest. 666 380 843

Adinekoak zaintzen ditut, orduka. Garbiketa lanetan ere aritzeko prest. 632 229 972

Eskaintzak

Umeak zaindu eta etxeko lanak egingo dizkigun pertsona bat behar dugu, berehala lanean hasteko. 636 193 807

Ile apaintzailea behar da San Lazaro Egoitzarako. 943 74 0296 (Monika edo Itziar).

Esperientziadun sukaldaria behar da Elgoibarko taberna batean lan egiteko. Bidalitako kurrikuluma argazkiarekin, helbide honetara: sukaldaribat@gmail.com

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Familia batek etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren. 632 608 683

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 605 322 824

Etxebizitza bila nabil. Buhardilla bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Gela bat edo bikoa. 602 490 595

GARAJEAK.....**Alokairua**

Bi autorentzako garaje marraduna alokagai Pista Beltzean. 75 €ko alokairua. 699 812 566



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gas banaketa enpresak esan digu gure komunitatean, segurtasun arazoak direla medio, plataforma bat jarri behar dela gas kontagailuetara iristeko. Orain patio batean daude kontagailuak eta atarian barrena joaten da hara; baina patioaren lurzorua eta lokalaren teilatua bat datoz. Lokalaren jabeak ez du lagatzen bere teilatuaren ezertxo ere jartzen, itokinak eragin ditzakeelako. Beraz, erabaki da teilatuaren gainean plataforma bat jartzea. Esan diezaioke ezetz erabaki horri lokalaren jabeak?

Plataforma bat teilatu gainean jarriz gero, teilatua euskarri izan gabe, baina fatxadetan ainguratuta, ez litza-teke arrazoi izan behar lokalaren jabeak ezezkoa emateko. Ez luke ezetz esan behar lurrazaren gainean jarriz gero, baldin eta lurzoru-teilatu hori, elementu komuna baldin bada. Azken kasu horretan ezingo luke kalte-ordainik eskatu elementu hori egituraren parte baita.

Legeak dio jabe bakoitzaren obligazioa dela bere etxebizitza edo lokalean eraikinaren zerbitzuari dagozkion konponketak onartzea, baita obrak zein zerbitzu komunak egiteko beharrezko zorrak ere, gaur egungo legearen arabera eginak edo adostuak badira. Horrela eskubidea izango du komunitateak egindako kalteak ordaintzeko.

AHOLKUA: Lokalaren jabea derrigortuta dago instalazio hori jasatera, izan elementu komun bateko beharrezko obra edo izan legeak onartzen duen jarduera bat egiteko zor.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak **Lucia**. Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Muxuak familia guztiaren partetik.



Zorionak, **Jon**, ekainak 9an urte bat bete zenuelako. Muxu handi bat familia osoaren partez.




Dagoeneko 7 urte mutil handi! Zorionak, **Endika** 7. urtebetetzean familiaren eta bereziki Markel eta Danelen partez.



Zorionak, **Lander**! Igandean 4 urte. Oso ondo pasa eguna. Patxo handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Alex** txapeldun. Muxu handi bat 11. urtebetetzean. Familiakoan eta bereziki Mikel eta Luciaren partez.



Zorionak, **Jone**, zure 7. urtebetetzean. Muxu handi bat, aita eta ama.



Ondo pasatu gaurko eguna. Argentinatik zure ahizpa Erika eta iloba Kamila. Zorionak, **Jone**.



Zorionak, **Noa**. Azkenean 4 urte! 4 muxu potolo etxekoan partez.



Zorionak, **Jon** eta **Javier**, 4 urte egin dituzuelako. Muxu handi bana etxeko guztien partez.



Zorionak, **Nahia, Oihan eta Izar**! Zuen urtebetetzean pastel handi batera gonbidatuko gaituzue. Ondo pasa!!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

ORBE

PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

atzak

taberna

San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

www.uzurioptika.com

**ZURE LENTILLA
PAKAREKIN
Nezeserra
+
Malko artifiziala opari**

Kontsultatu baldintzak dendan/ Balioagarria stocka agortu arte.

10 BARIKAKUA

8:20-9:30 Oin Alai kalejira berezia. Elgoibar Ikastolara eta Herri Eskolara. Kalegoen plazatik

17:30 Kiribil. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Kalegoen plazan.

19:00 Kontzertua: Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako talde finkoak. Herriko Antzokian.

21:30 Bideo foruma: *Piedras*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00 Dantza ikuskizuna: *Biraka Power! Gure Indarra!*. Doan. Mendaroko Goñati pilotalekuan.

22:00 Kontzertua: Amorante (Iban Urizar). Itziariko Burugorri etxean.

11 ZAPATUA

10:00 Mintxetako igerilekuen denboraldiaren irekiera.

10:30-14:00 Alcer Giltzurrun gai-xoen Elkartearen informazio mahaia. Kalegoen plazan

11:00 San Bartolome parrokian bisita gidatua, Pello Arrietarekin.

10:30-13:30 Eskubaloi eguneko partidak. Sanlo EKT. Kalegoen plazan.

12:30 Sanlo festa. Zapi banaketa. Kalegoen plazan.

14:30 Sanlo festa. Bazkaria, oroigarri banaketa eta dantzaldia Sigmako aparkalekuan.

12 DOMEKA

9:00 Bide proiektua. Elgoibar-Azpeitia ibilbidea. Mintxetako BTT zentrotik.

9:30 Bisita gidatua 1936ko Gerran Kalamua aldean izandako borrokaldeen berri emateko. Usartza (Eibar), Akondia-Garagoiti, Tomas Meabe aterpetxea, Diruzuloko tumulua, Max, Kalamua eta Usartza. Antolatzailea: Ahaztuen Oroimena Elkartea. Usartzatik abiatuta.

13 ASTELEHENA

17:00 IMHren Ingeniaritza dualaren informazio saioa. IMHn.

Azken eguna: TKgune fabrikazioa enpresa industrialen ideia lehiaketa. Proposamenak aurkezteko azken eguna.

15 EGUAZTENA

19:00-22:00 Pintxo lehiaketa. Antolatzailea: Merkataritza Saila.

20:00 Dantza ikuskizuna: *Biraka Power! Gure Indarra!*. Sarrerak: 3 euro (Pitxintxu dendan). Herriko Antzokian.

16 EGUENA

19:00-22:00 Pintxo lehiaketa.

20:00 Dantza ikuskizuna: *Biraka Power! Gure Indarra!*. Sarrerak: 3 euro (Pitxintxu dendan). Herriko Antzokian.

17 BARIKAKUA

19:00-22:00 Pintxo lehiaketa.

20:00 Dantza ikuskizuna: *Biraka Power! Gure Indarra!*. Sarrerak: 3 euro (Pitxintxu dendan). Herriko Antzokian.

BENETAKO BIZITZARAKO
HIPOTEKARIOAK

EURIBOR
+ % 0,85

Lehen urteko ITNa: %1,30.
UTBAldakorra: %1,229*

CA bankoa
CREDIT AGRICOLE



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G
U
A
R
D
I
A
K**09:00 - 22:00**

10 Barixakua ORUESAGASTI
 11 Zapatua BARRENETXEA
 12 Domeka BARRENETXEA
 13 Astelehena IBAÑEZ
 14 Martitzena GARITAONANDIA
 15 Eguaztena ETXEBERRIA
 16 Eguena FERNANDEZ
 17 Barixakua YUDEGO

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19
 Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Maiatzean hildakoak

- Pakita Iruretagoiena Elustondo

89 urte, maiatzak 1

- Esther Etxeberria Mendizabal

83 urte, maiatzak 9

- Amor Garcia Fernandez

88 urte, maiatzak 10

- Guadalupe Mujika Iturzaeta

94 urte, maiatzak 11

- Maria Navarro Sisternas

83 urte, maiatzak 12

- Eduardo Perez Garcia

87 urte, maiatzak 19

- Marcelina Goizeru Sorazu

94 urte, maiatzak 25

- Tomas Belaustegi Urkidi

82 urte, maiatzak 27



ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

www.funerariaetxeberrria.com



Julen Ansola



Julen Ansola

Eider Iriondo



Ilusioz beteriko begirada zurea, Iban. Arratseko bostak plazako erlojuan eta kanpaien eztrandarekin batera ekin diozu bideari. Helburua lortzea zaila, batzuen esanetan zorakeria hutsa, ezinezkoa.

Herriko maldetan gora eta behera, herria zeharkatuz, lagunen animo eta laguntzarekin zure indar eta gogoak handituz giro sargoriari aurre eginez zoaz. Gaueko iluntasunean etortzen zaizkizu zuregana; beldurra, hotza, zalantzak, trumoiak, euria...

Gure mendian entzundako trikiti doinuek zure barre eder hori atera dizute eta berriz ere bizirik zaude. Mendia bizirik dago eta bertan aurkitzen dituzu, zure gustuko haizeak, usainak, loreak eta libre zara bertan.

Egusentian, eguzkiaren argitasuna bezain garbi ikusten duzu helburua lortu ahal duzula baina pausoak eman ahala zure gorputzeko zauriek bidea uztera behartzen zaituzte. Ametsa eskuetatik joan zaizu oraingoan baina saiatze hutsak badu meritua. Hurrengoan ere izango duzu aukera.

Orain, jarrai ezazu bidea egiten, Iban, eta Roberekin batera jarraitu mendietan gora eta behera dantzan eta kantuan:

“y yo me seco el sudor y me vuelvo a sentir libre, libre, libre, libre...”

Elgoibartar batzuen elkarlanari esker sortu da “2-dean Berotuz” ekimena eta izan du bere oihartzuna gure herrian.

Hemendik kilometro askotara daudenen errealitate gordina erakutsi nahian oihu egin digute. Begiak ireki eta benetako tragedia gure begiekin ikusteko ozen esan digute.

Gerra urrun batetik oihu eginez datozenak.

Bizi ziren etxeak utzi eta itsaso zabalean murgilduz mundu hobe baten egarri direnak.

Batzuek hondartzako harea zapalduz helburua beteta izango dute, ez dute erraz izango baina bide berri aldapatsuari aurre egin ahal izango diote.

Beste askok, ordea, itsaso zabalean emango dute beraien azken hatsa. Benetako hotzikara sentitzen dut eta barruraino sartzen zait beldurra, lehen paradisu ziren hondartzak, orain benetako hilerri bihurtu direla ikustekak.

Guk bidalitako laguntzak balio dezala beraien begiraden argia piztuta mantentzen.

“Bideak aurrera darrai, luzea eta gogorra izango da baina ilusioa eta bizitzeko gogoa ez digu inork kenduko”

Belaustegi Baserria



JATETXEA

17. urteurrena

Eskerrik asko elgoibartarroi!

Portxe-jardineko jaiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.

www.belaustegi.com

San Migel Goina z/g

Tel.: 943 743 102



Antxustegi

burdindegia zure neurrira egindako pintura
KRONA ERAIKITZE MATERIALAK Laminatuak
AINUGELA VELUX margotutako papela
KARCHER GILTZEN KOPIAK
binilozkoak STHIL harria
LORATEGIRAKO ALTZARIAK PORTZELANAZKOAK
harria VELUX PORTZELANAZKOAK
MARGOTUTAKO PAPELA
ZURE NEURRIRA EGINDAKO PINTURA
karcher GILTZEN KOPIAK binilozkoak KARCHER
STHIL binilizkoak
LOREZAINZA burdindegia
BAINUGELA VELUX Laminatuak
KARCHER harria burdindegia
PORTZELANAZKOAK KARCHER margotutako papela
HARRIA KARCHER barbakoak
barbakoak STHIL
BURDINDEGIA
ERAIKITZE MATERIALAK Harria
LORATEGIRAKO ALTZARIAK binilozkoak
Laminatuak harbakoak KRONA